


KULTURA SAILA: EGITURA-ORGANIGRAMA BERRIA


Martxoaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian dagokion Dekretua argitara eman eta gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egitura-organigrama berria du. Dekretu horrek 2002tik orain arte indarrean egon dena ordeztu du.

bilian-ibilian funtzionamendu-moduari zein jardun-eremuei dagokienez ikusitakoa arteztu eta, era berean, Legegintzaldi berrirako begiz jotako aurreikuspenak artez eta moldez burutze aldera, Kultura Sailak egoki iritzi dio egitura organiko berria finkatzeari. Hortik dator, ondorioz, Jaurlaritzak otsailaren 14ko gobernu-bileran onartutako 25/2006 Dekretua.

Dagokion funtzioak betetzeko eta jarduteko dituen eskumenak gauzatzeko, Kultura Sailak hiru organo-mota hauek ditu bere egituran: Organo nagusiak (Kultura sailburua; Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordezta, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordezta); Atxikitako erakundeak (HABE, Euskal Irrati Telebista eta Euskadiko Orkestra) eta kide anitzeko Organoak (Kulturaren Euskal Kontseilua, Euskararen Aholku Batzordea,...).



Beste jardun-arlo batzuen artean, Kultura Sailak honako hauek ditu: hizkuntza politika eta euskararen sustapena. Jardun-arlo horien baitan dauden zereginak Hizkuntza Politikarako Sailburuordezak egitekoak dira. Honatx esandako Sailburuordezaren egitura:



Miren Azkarate Villar
Kultura sailburua



Patxi Baztarrika Galparsoro
Hizkuntza Politikarako sailburuordea



Jokin Azkue Arrastoa
Herri Administrazioen Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria



Igone Etxebarria Zamalloa
Euskara Sustatzeko zuzendaria



Miren Mateo Aierza
Koordinaziorako zuzendaria

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN ZEREGIN NAGUSIAK

Hainbat dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitekoak. Honatx horietako garrantzitsuenak, labur-labur adierazita:

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika artikulatzea eta jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak emanda Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bete beharko dituzten arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.
- Euskal Autonomia Erkidego osorako plangintza orokorra osatzea eta jarduera bateratuak burutzeko planak egitea, Jaurlaritzak onar ditzan.
- Euskararen Aholku Batzordeak egindako proposamen zehatzetan oinarrituta, hizkuntza politikan eskumena duten herri agintez guztien arteko lankidetzaren dinamizatzea eta sustatzea.
- Euskararen Legea eta gainerako xedapen osagarriak modu egokian gara eta bete daitezien begiratzea.
- Hizkuntza normalizatzeko zereginetan, euskara normalizatzen eta araupetzen diharduten erakundeekin harremanak izatea eta, euskal hiztunen komunitate osoa kontuan izanik, beste lurralde batzuetako era guztietako erakundeekin eraritzea.
- Hizkuntza eskakizunak eta horiek aplikatzeko irizpideak zehazteko proposamena osatzea Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritako ondorioetarako.

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA ARABAKO TOPONIMIA BERRIKUSTEN HASI DA

Azken hogeitun urteetan irekitako bideari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EAEko toponimia ikertu eta finkatzeko beste pauso bat eman du: 1991n egindako Arabako toponimia-lanaren berrikusketa. Lan hori Deustuko Unibertsitateko Deier Institutua egiten ari da, HPSren enkaruz.

Leku-izenak oso informazio-iturri garrantzitsuak dira hizkuntza baten ibilbidearen berri jakiteko; hori dela-eta, HPSk hizkuntza lantzeko daukan arduraren barruan leku zabala eskaintzen dio toponimiari. Ildo horretatik, HPSk 1986an ekin zion EAEko toponimia biltzeari, Bizkaiko toponimia datu-base batean bildu zuenean; geroago, 1991n, datu-base hori Gipuzkoako eta Arabako toponimiako bilketan lanekin osatu zuen.

Harrezkero, etengabe aritu da datu-base hori eguneratzen eta zuzentzen, esaterako: 2003. urtean Bizkaiko toponimia berraztertu zuen, izen normalizatuak finkatzeko eta 1:5.000 eskalako kartografian txertatzeko. Lan horretan erabiliko irizpideak eta arauak Euskaltzaindiarekin batera finkatu ziren, eta lan hori berori egingo da orain Arabaren kasuan.

Hortaz, 1991n egindako lanaren emaitza oinarritzat hartuta, honako pauso hauek emango dira Arabako toponimian:

- Iturri dokumentalen hustuketa: besteak beste, katastroa, iturri kartografikoak, artxibategiak eta argitalpen berezituak arakatuko dira, hau da, informazio idatzi baliagarria biltzen duten dokumentuak.
- Toponimoen normalizazioa: leku-izen bakoitzari buruzko informazioa aztertu eta banan-banan izen normalizatua zein izango den erabakiko da, beti ere Euskaltzaindiaren onepenez.
- Toponimoak kartografian txertatzeko irizpideak: izena generikoarekin (Oria ibaia) edo generikorik gabe (Oria), euskarazkoa eta erdarazkoa bat ez datozenean nola jokatu (Gorbel mendilerroa / Sierra Sálvada), biztanleentitateen izen ez-ofizialak mapetan jaso ala ez, eta abar.

Arabako lana bukatutakoan, eta prozesua boro-biltzeko, Gipuzkoako toponimia berrikusiko da; azkenik, EAEko toponimia guztia erabiltzaileen eskura jarriko da Interneten kontsultagai.



IRAKASKUNTZA-MUNDUKO JAI NAGUSIAK

Urtero ohi denez, aurten ere milaka lagun bilduko da irakaskuntza-munduko festa handietara. Izan ikastolen jaiak direlako, edo eskola publikoaren festak, gure herrietako bazterrek joko, musika eta jolasez beteko direna ez da batere dudarik.

Ipar Euskal Herriko eskola publiko elebidunen besta maiatzaren 7an izango da, Donibane Lohitzuneko Dukontenia Parkean, Ikas-Bi elkarteak antolatuta.

Ipar Euskal Herriko ikastolen jaiak, Herri Urrats, izango dugu geroago. Maiatzaren 14an egingo da, Senpereko lakua-aren inguruan, "Aintzirarat" lemapean. Ziburuko ikastola berria eraikitzen laguntzea da aurten-ego helburua.

Hurrengo, maiatzaren 20an, Nafarroako eskola publiko berriaren XI. festa izango da, Iruñeko Takoneran, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak antolatuturik, "Herri-rik jasotako eskola" lelopean.

Maiatzaren 28an, berriz, Ibilaldia ospatuko da, aurten Bizkaiko Elorrio urian, "Batzen gaituena" leloaren azpian.

Ondoren, ekainaren 4an, EAEko eskola publikoaren XV. jaiaren txanda izango da. Oñatin egingo da, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak antolatuturik. "Mugak gaindituz" urteroko lelo nagusiaren ondoan, "Herriak biribilduz" lema ere ageriko da.

Hurrengo jaiak, uda aurreko azkenekoa, ekainaren 18an helduko da. Araba Euskaraz izango da eta Gasteizko Armentian egingo da "Barruan daramagu" lema harturik.

Udako parentesia eta gero, beste bi festa handi izango ditugu udazken aldera. Lehena, Kilometroak, Gipuzkoako Ikastolen jaiak. Oartzunen izango da, urriaren lehenengoan, "Ingoyeu" lemapean.

Azkenik, urriaren 14an, Nafarroa Oinez-en txanda izango da. Beran ospatuko da eta "Baietz oraingoan" izango du lelotzat.



Bidegileak

Web orria berri-
du eus-
kararen aitzindari-
Bidegileak bildu-
mak (www.euskara.euskadi.net).



Argiagooa, ikusgarriagooa eta arinagooa da oraingo atala: batetik, biografiatu bakoitzari dagokionez, fitxa tekniko batek liburuaren nondik norako guztien berri ematen du laburki eta, bestetik, pdf formatuko argitalpena eskaintzen du, osorik.

Dagoeneko sarean dira argitaratu diren azken sortak, hots, 39tik 42ra bitartekoak.

Hizkunea

Soziolinguistika arloko gaiak jorratzen ditu Hizkunea aldizkari



elektronikoak. Soziolinguistikaren arloa osatzen duten jakintza-esparru desberdinen berri ematen du modu erakargarri eta errazean. Artikulu nagusiarekin batera, agendari, argitalpen eta azterlanei eskainitako atalak ditugu.

Hizkunea iazko udazkenean abiarazi zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hilero artikulua berri-
tu bezain laster, harpidetza eginez (www.euskara.euskadi.net) nahi duenak doan jaso dezake Hizkunea bere orde-
nagailuan.

Euskal Literatura



Urteetan Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatuta eta hainbat erakundek (EIZIEK, Euskal Editoreen Elkarteak, zenbait argitaletzek) jorratutako ekimenak ditugu Literatura Unibertsala eta Euskal Klasikak bildumak. Euren berri ematen duten katalogoek itxura aldatu dute: argitaratutako liburuen gaineko informazio zehatza ekartzeaz gain, idazleek eta euren lanek Interneten izan dezaketen bide luze-laburra jasota dago www.euskara.euskadi.net helbidean.

IKASBIL

Euskara-ikaslearen atari berria garatu du HABEK. Ikasbil du izena eta ikasleek euskara ikasteko baliabideak eskuratzeko da helburu. Ikasbil atariak orain arte sakabanaturik zeuden euskara-ikasle-

entzako zerbitzuak interface bakar batera bildu ditu. Horrez gainera, euskaltegietak irakasle eta ikasleei baliabide egokiz hornitzeko bitarteko arin eta dinamikoagoak eskaintzen dizkie.



Euskara-ikasleak hainbat baliabide aurkituko ditu atari honetan. Bilatzaile eraginkor baten bidez, bestalde, ikasleak erraz eskuratuko ditu edukiak, bere beharren arabera betiere. Egun, 8.000 eduki didaktikotik gora daude Ikasbil-en (idatziak, entzutekoak, bideoak, ariketak, sekuentziak...), denak ere irizpide didaktikoz katalogaturik (euskara-maila, helburu didaktikoa...) eta on-line egiteko moduan jarriak.

Horrez gain, ikas-prozesuan baliagarri diren bestelako baliabide asko ere izango ditu bertan euskara-ikasleak. HABEK berak sortu edo bideratuak dira denak; tartean, badira euskara-

-ikasleek beraiek sortuak ere: dela irrati-nobelak, denbora-pasak, ipuinak...

Atari honek informazioa ere eskainiko du. Alegia, euskaltegien eskaintza, deialdien ezaugarriak, matrikulazio epeak eta gainerako jakinagarririk albiste emango du. Era berean, euskarazko kultur emanaldi eta ekintzen berri ere emango du, euskara-ikasleak erabateko zerbitzua jaso dezan.

Atari osoa software librea erabiliz garatu da (Apache, MySQL, Jetspeed) eta mbase eduki kudeatzailea erabiliz eguneratzen da (www.ikasbil.net).

ARGITALPENAK

Euskara.euskadi.net atariak berritzen jarraitzen du. Oraingoan arloz arloko argitalpenei buruzko atala jarri da abian. Erabiltzaileak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kaleratutako zenbait argitalpenen berri izateko aukera du bertan. Argitalpen batzuk agortuta daude; beste batzuk, aldiz, eskuratzeko moduan. Argitalpenon edukia kontuan, atalka sailkatu dira: euskararen legea, terminologia, toponimia, arlo sozio-ekonomikoa, administrazioa, ikuspegi soziolingüistikoa, ikuspegi historikoa eta soziala, Euskararen Aholku Batzordearen Aholku bilduma, planak eta bestelakoak.

Atalaren erabilgarritasuna areagotzeko asmoz, gainera, zenbait argitalpenen pdf-ak ere erabilgai daude.

Aurrerantzean ere, argitalpen berriak izan ahala, gaurkotzeko asmo sendoa dago.

ADMINISTRAZIO-KONTRATUEK BETE BEHARREKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Aurrerantzean, Eusko Jaurlaritzaren zein honen menpeko erakunde autonomo eta ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan hainbat hizkuntza-baldintza bete beharko da. Betebehar horiek zehatz-mehatz agertuko dira kontratu bat sinatze aldera prestatu beharreko agiri eta baldintza-orrietan. Hori dela-eta, kontratu-mota bakoitzaren ondorioz gauzatu edo eman beharreko lan eta zerbitzuetan gaztelaniak duen besteko lekua egin behar zaio euskarari. Goian aipaturiko neurriak Jaurlaritzaren kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartu zituen.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatutako batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es